

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure bezeroekiko harremana ahal dugun eran pertsonala izatea espero dugu, tratua guretzako hobea izaten baita. Horrela bezeroek bilatzen ari diren produktua eskaini ahal diegulako eta merkatuan dauden modeloak erakutsi ahal diegulako fisikoki, bakoitzaren ezaugarriak azalduz. Horretarako denda fisiko bat zabaltzea pentsatu dugu eta proiektua ondo badoa hiri gehiagotara zabaldu nahi dugu.

Horrez gain webgune bat zabaltzeko asmoa daukagu, lehen esan duguna guretzat garrantzitsuagoa izan arren (bezeroek zerbitzu hobea jasotzen dutela denda fisiko batean) egia da, gaur egun webgune bat izatea garrantzitsua dela. Horrela, gure inguruan bizi ez diren pertsonak ere gure produktuak erosteko gai izango dira. Gainera bezeroek dendara etorri baino lehen webgunea kontsultatzeko aukera izango dute, idea bat edukitzeko erostera etortzeko momentuan.

Nola ekarriko ditugu bezero berriak?

Bezero berriak ekartzeko zenbait publizitate proiektu habian jarri ditugu. Adibidez, iragarki bat egiteko asmoa daukagu. Gainera, sare sozialak erabili ditzakeguz handik publizitatea egiteko eta gure produktua erakusteko. Erabiliko ditugun sare sozialak instagram, facebook eta twitter izan ahal dira adibidez.

